



Osasun Eskualde Oinarrizkoa

Sangüesa / Zangoza



Observatorio de Salud Pública de Navarra
Nafarroako Osasun Publikoaren Behatokia



1. Argibide orokorrak

	Eskualdeko balioa	Nafarroa
Biztanleria (2023):	9.847 Emak.: %48,3 Giz.: %51,7	672.155 %49,5 %50,5
Batez besteko adina:	Emak.: 50,4 Giz.: 47,5	46,3 43,2
Ugalkortasun-tasa:	%49,7	-
Gazteen mendekotasunaren indizea:	% 18,6	%24,7
Zahartzaroko mendekotasun indizea:	%45,8	%32,0
Gainzahartzea:	%22,8	%17,2
Atzerritan jaiotako biztanleak:	%11,3	%17,9
Bizi itxaropena:	Emak.: 88 Giz.: 81,2	86,8 81,3
Biztanleria-dentsitate:	11,6 biz.km ²	68,9 biz.km ²
Zabalera:	842,63 km ²	9758,6 km ²
Zer Eskualdetakoa den:	Erdialdeko Eskualdeak (ikus mapa)	
Udalerriak:	Aibar, Cáseda, Eslava, Ezprogui, Gallipienzo, Izagaondoa (sólo incluye: Induráin), Javier, Leache, Lerga, Liédena, Lumbier, Petilla de Aragón, Romanzado, Sada, Sangüesa, Urraúl Alto, Urraúl Bajo, Yesa	

Hala ere, 20 urtetik beherako ama duten jaioberrien tasa (% 2,0) handia da. Gainerako adierazle soziodemografikoak eta ingurumenekoak Nafarroako batezbestekoaren inguruan daude.

Osasunari dagozkion emaitzak. Zangozako osasun-eskualde oinarrizkoa laurden txarrenean dago datu hauetan: HbA1c-ren neurketa duten diabetikoak (% 75,1), TA-ren neurketa duten hipertentsioak (% 48,2) eta antsiolitikoen eta antidepresiboen kontsumoa (emakumeen % 17,9 eta gizonen % 9,6). Bestalde, osasun arloko gainerako adierazleak Nafarroako batezbestekoaren inguruan daude.

Inkesta-adierazleak. Hurrengo emaitza doituak* Erdialdeko Eremuei dagozkie (LAP zonifikazioa); Zangozako eskualde oinarrizkoa zona horretan dago. Erdialdeko Eremuek emaitzarik onena dute zenbait adierazletan: bizimodu sedentarioa izatea (emakumeek: % 22,3), ongizate txikia izatea oro har (emakumeek: % 21,3), tabakoa egunero erretzea (emakumeek: % 12,9) eta gehiegizko pisua izatea (15 urteko edo gehiagoko gizonek: % 54,8). Aitzitik, emaitzarik txarra du adierazle batean: ongizate txikia izatea (gizonek: % 34,2).


***Oharra:** Inkesta-adierazleak eta hala eskatzen duten beste adierazle batzuk sexuaren eta adinaren arabera doitu dira, eskualdeen arteko konparazioa egin ahal izateko. Adierazle gordinak hurrengo orrialdearen behealdean agertzen dira.

2. Komunitatea eta osasuna

Faktore soziodemografikoak eta ingurumenekoak. Zangozako osasun-eskualde oinarrizkoan, beste eskualdeekin alderatuta, langabezia-tasa (% 7,2) txikia da.

3. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira adierazle sorta bati dagozkion eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoarekin alderaturik (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarritzkoen multzo osoarekin alderaturik. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero, haien [banakako fitxak](#) ikus daitezke Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1: Biztan. Mug. Nat.; 2, 6-7: SIPNa (Nafarroako Biztanleriaren Sistema Integratua); 3: Biztan. Akt. Udal. Estat; 4-5: Errenta. Estat; 8: SIGPAC (Nekazaritzako Lurzaten Informazio Geografikoko Sistema); 10, 24-27, 30-31: Oinarritzko osasun-laguntza; 10-21: ESyCV (Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta); 22-23: NOPLOI; 28-29: Farmazia prestazioa

Nafarroa Atlantikoaren adierazleak (10-21) LAP zonifikazioa (NASTAT). Irudian adierazitako balioen kopurua: 4.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzarekin alderatuz (bizimoduaren, morbiditatearen eta osasun sistemaren adierazleentarako eginiko kontrastea).

1. Urteko batez besteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14 eta 19 urte bitarteko emakumeetan; 2. DBHko graduatu-titulurik edo haren baliokiderik gabeko 18tik 24 urtera arteko gazteen %; 3. Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean; 4. Bizikideen errentaren baturak pobrezia larriaren atalasetik behera egiten duen etxeetan bizi diren pertsonen %; 5. Diru-sarreraren desberdintasunaren Gini indizea, datu baxuagoak berdintasun handiagoa adierazten du; 6 eta 7. Bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko pertsonen %, adin horretan familia-etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; 8. Baso-azaleraren %; 9. 170-190 egunetara soilik amagandik edoskitzen duten haurrak %; 10 eta 11. Frutak eta barazkiak egunero jaten dituzten pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 35,4 eta gizonak 27,5); 12 eta 13. 15 urteko edo gehiagoko sedentarioen % doitua: ariketarik egiten ez dutela diote (t. gordina: emakumeak 22,8 eta gizonak 20,4); 14 eta 15. Astean 100 g alkohol baino gehiago hartzen dutenen % doitua (t. gordina: emakumeak 6,3 eta gizonak 23,1); 16 eta 17. Tabakoa egunero hartzen duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 11,9 eta gizonak 21,8); 18 eta 19. Ongizate orokor baxua duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 21,9 eta gizonak 33,5); 20 eta 21. Pisu gehiegi, gehiegizko pisua edo obesitatea duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 38,3 eta gizonak 57,2); 22 eta 23. Pisu gehiegi -gehiiegizko pisua edo obesitatea duten- 6tik 9 urtera arteko haurren prebalentzia doitua, OMEK haurren hazkuntzarako emaniko ereduaren arabera (T. gordina: emakumeak 29,8 eta gizonak 31,3); 24 eta 25. 2 motako diabetesa duten 20 urte edo gehiagoko pertsonen prebalentzia doitua (T. gordina: emakumeak 7,7 eta gizonak 10,6); 26 eta 27. 3 patologia edo gehiago dituzten 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 9,7 eta gizonak 12,8); 28 eta 29. Azken urtean, multzo hauetako bateko 3 ontzi edo gehiago hartu dituzten pertsonen % doitua: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (t. gordina: emakumeak 23,7 eta gizonak 11,4); 30. 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c-a) neurtu duen biztanleriaren %; 31. Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala (TA) neurtu zaion biztanleriaren %.